



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

IV. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2021eko ekainaren 9, 10 eta 11a
Gasteiz, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

A(ha)l, mugaz gaindiko partikula,

*Maitena Duhalde de Serra eta
Sergio Monforte*

27-33 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iv.01.03>



A(ha)l, mugaz gaindiko partikula

Duhalde de Serra, M., Monforte, S.

(UPV/EHU)

maitena.duhalde@ehu.eus, sergio.monforte@ehu.eus

Laburpena

Artikulu honetan erdialdeko *al* eta Lapurdi itsas hegiko *ahal* partikulen azterketaren lehenengo emaitzak dakartzagu. Lehenik, bi partikulen propietateei begiratu diegu, erabilera, funtzioa eta testuinguru sintaktikoa zehaztuz. Ondotik, gramatikalizazioaren ikuspegitik, *ahal* eta *al* partikulak erlazionatzeko argudioak azaldu ditugu, Lapurdi itsas hegiko datuen azterketak duen interesa azpimarratuz. Azkenik, hemen aurkezten dugun hipotesia berretsi ahal izateko, etorkizunean datu berrien jasotzeko inkesta-motaren diseinua proposatu dugu.

Hitz gakoak: *al* eta *ahal* partikulak, aldakortasun dialektala, sintaxia, interpretazioa, gramatikalizazioa.

Abstract

In this article we present the first results of our research about the particles *al* used in the Basque central dialect and *ahal* present also in questions on the Lapurdian coast. First, we look at the properties of the two particles and determine their use, function and syntactic context. Furthermore, we provide arguments for the relation of both particles considering a grammaticalization path such as *ahal* > *al*; indeed, the data from the Lapurdian coast would be essential for the understanding of the whole process. Finally, in order to confirm the hypothesis presented here, we design a type of questionnaire to gather new data in the future.

Keywords: *al* and *ahal* particles, dialectal variation, syntax, interpretation, grammaticalization.

1. Aitzin solasa

Galderetan bi partikula modal baliatzen dira batez ere: *al* eta *ote*. Hala ere, hainbat iturrik (Euskaltzaindia, 1987; Mitxelena eta Sarasola, 2016) agerian uzten dutenez, *ahal* ere galderetan erabil daiteke. Interesgarria da partikula horren erabilera idazle lapurtarren (Larzabal, 1991, 1992a, 1992b; Treku, 2006), hainbat kasutan erdialdeko *aletik* hurbil baitago. Zoritzarrez, erabilera hori ez da deskribatu, ezta ikertu ere.

Izan ere, gaur egungo hizkeren biltzea eta aztertzea premiazkoa da, hala nola Ipar Euskal Herrian, hainbat arrazoiengatik aldatzen ari baitira; horien artean, bizi molde aldaketak, euskara batuaren eragina edo inguruko euskal hizkeren eragina zein frantsesaren eragina aipagarriak dira. Dialektologoen hizkera hauen deskribatzeko premia azpimarratu dute, konparazione, Zuazok (2006: 99): *Ipar Euskal Herrikoa da denetan ezezagunena, eta galbide lasterrean doazkigu alderdi hartako hizkerak. Edo berdintzen, galtzen ez direnak*. Saio honetan, Lapurdi itsas hegiko euskarari buruzko datu berriak ekarri nahi ditugu eta hauen azterketak dakarren interesa azpimarratu.

Euskalkien sailkapenerako abiaburu dugu Bonapartek XIX. mendean eginiko ikerlana. Sailkapen honetan, lapurtera euskalkian *berezko lapurtera* —Donibane Lohizuneko, Sarako eta Ainhoako euskarak biltzen dituen— eta *lapurtera hibridoa* —Arrangoitzen mintzatua— bereizten dira (Bonaparte, 1991 [1869]: 226). Vinsonek (1907: 629), bertzeak bertze, sailkapen hau aintzat hartu zuen, Azkaine, Bidarte, Biriatu, Donibane Lohizune, Getaria, Hendaia, Urruña eta Ziburu, Lapurdi itsas bazterreko lapurteran kokatuz.

Azken sailkapenetan ere, nahiz eta ikuspuntuak eta proposamenak ezberdinak izan, aipagarria iruditzen zaigu dialektologoen Lapurdi itsas hegiko hizkeraren nortasuna agerian eman izana. Aurrekoetxeak, Gamindek, Ormaetxeak eta Videgainek (2019) proposatu euskalkien sailkapenean, Ipar Euskal Herri osoa hartzen duen ekialdeko dialektorearen barnean hiru azpieuskalki nabarmentzen dituzte eta horietarik bat dugu itsasaldeko azpieuskalkia.

Zuazok urteetan landu duen euskalkien sailkapenean *nafar-lapurtera* euskalkiaren barnean bi azpieuskalki bereizten ditu (Zuazo, 1998, 2003, 2008, 2014): *sortaldekoa* eta *sartaldekoa*. Azken azpieuskalki honek Lapurdi mendebaleko herriak hartzen ditu (Zuazo, 2014: 133). Sailkapen honetan ere kostatar hizkeraren nortasuna nabarmentzen da: *erdialdeko euskararen eta nafar-lapurteraren arteko lotura egiten du* (ibidem: 142).

Bidasoaren bertze aldeko hizkerekin lotura hau azpimarratzen du Gimet donibandarrak (1950) ere,

Donibane Lohizuneko euskarari eskaintzen dion artikuluan. Izan ere, Gipuzkoako, baina baita Bizkaiko euskalkien eragina ere azpimarratzen du Donibane Lohizuneko mintzairaren fonologian zein morfologian (ibidem: 224).

Lan honetan, *ahal*¹ partikula izanen dugu aztergai, Lapurdi itsas hegiko euskararen. Bertan bildu ditugun datu berriak aurkeztu ondotik, erdialdeko hizkeretan ezaguna den *al* partikularen funtzioekin alderatuko dugu, mintzaira bakoitzeko erabilera zehaztuz. Hemen aurkezten dugun lana lehen urratsa baita, etorkizunean egin beharreko lanak zehaztuko ditugu. Horien artean, datu gehiago biltzeko asmoz, bertako lekukoekin egin genezakeen inkesta-mota diseinatzen ahaleginduko gara.

2. Ikerketaren helburuak

Arestian erran bezala, beraz, galderetan *ahal* partikulak duen erabilerari arretaz begiratuko diogu ikerketa honetan eta berorrek erdialdeko *al* partikularekin duen harremanari hain zuzen. Hasteko, errepara diezaiozun Lapurdi itsas hegian lekukotzen den erabilerari; horretarako, sortzez azkaindarra den Larzabalen (1991, 1992a, 1992b) lanetako adibideak baliatuko ditugu. Hona adibide zenbait:

- (1) Aditu dituzu tuta horiek, eta norentzat diren ba ahal dakizu?... (Larzabal, 1991)
- (2) Orai, aski miatu ahal nauzu? (ibidem)
- (3) (Obedituz) Ba, ez bainakien nola egin: bi paperak barnean ezarri ditut... Ontsa egin ahal dut? (ibidem)

Adibide horietan *ahal* partikula agertzen zaigu eta lehenengo begiradan erdialdeko *al* partikula ekar diezagukete burura, grafiak albo batera utzita. Hala ere, hiru propietatetan nabaritzen da *ahal* eta *al* partikulen artean badagoela aldea.

Lehena kopurua da: *al* partikula erruz azaltzen da erdialdeko euskalkian polaritatezko galderetan (informazioa eskuratu nahi duten galderetan, eskaeretan, harridura-galderetan...); Lapurdiko itsas hegian kopuru askoz txikiagoan lekukotzen da *ahal* eta baiezko galdera mota jakinetan, orain aditzera emanen dugun bezala.

Bigarrena funtzioa da: partikula horiek erabiltzeko baldintzak bertsuak diren zehaztea da ikerketa honen helburua; hala ere, beroriek agertzen direneko testuinguruak salatu egiten dute ez dutela funtzio bera betetzen. Izan ere, Monforteren (2020b: 165) arabera, *alek* ez dakar ñabardura semantikorik eta hizketa-ekintzari eragiten dio zuzenean; *ahalek*, ordea, modalitateari egiten dio ekarpena, *ote* partikula epistemikoak bezala, eta horregatik dira bere balizko testuinguruak mugatuagoak. Zer-nolako interpretazioa gehi liezaioke perpausari? Gure hipotesia da *ahalek* deklaratioetan duen ekarpena atxikitzen duela galderetan, baina hiztunarekin gabe, entzulearekin dago lotuta; beraz, (2) bezalakoetan honako interpretazioa dago:

- (4) Nik uste dut aski miatu nauzula eta jakin nahi dut ea zuk ere bat egiten duzun proposizioarekin².


Hirugarrena testuinguru sintaktikoa da. De Rijk (2008: 442) eta bertze hainbatek (Euskaltzaindia, 1987: 512; Monforte, 2018) adierazten dute *al* galdera zuzenetan ez ezik, zehar galderetan ere erabil daitekeela. Ikerketa dugun *ahal* horrek mendeko testuinguruetan agertzeko murriztapena bide du. Ez dirudi ezaugarri horrek zerikusia duenik partikula motarekin, hots, partikula epistemikoa izatearekin, *ote* azal baitaiteke mendeko perpausetan. Aitzitik, bere interpretazio eta funtzioak mugatuko litzukete bere balizko testuinguru sintaktikoak, zehar galderetan nekez txerta baitaiteke *ahalen* ekarpena, entzuleak proposizioarekin engaiamendu maila handia duen ala ez galdetzea alegia.

Horiek dira bi partikula horien arteko desberdintasun nabarmenenak. Dena den, bertze arlo batzuei ere begiratu beharko litzaieke. Errate baterako, prosodia ere ikertzekoa da: galdera partikula duten testuinguruetan beheranzko intonazioa dago perpausaren amaieran; *al* partikularik gabekoetan, berriz, amaieraren intonazioa goranzkoa da (Aurrekoetxea et al., 2011; Alberdi, 2014). Antzeko egoera aurkitzen dugu *ote* duten galderetan eta badirudi *ahalen* kasuan patroia bera agertzen dela Getarian bildu dugun ondoko galderan:

¹ Lan hau errazago irakurtzeko eta ulertzeko honako hautua egin dugu: partikula epistemikoaz ari garenean, *ahal* grafia hobetsiko dugu, nahiz eta partikula epistemikoaren *al* grafiak ere tradizio idatzi luzea duen; aldiz, *al* grafia baliatuko dugu erdialdeko euskalkira mugatua den galdera partikulaz ari garenean.

² Berrikusle batek galdetzen du ea egoera berean erabil litekeen erdialdeko *al*. Batetik, Hego Euskal Herrian oro har bertze baliabide bat erabiltzen da horrelako testuinguruetan, *ezta?* partikula alegia; bertzetik, *al* partikula testuinguru gehiagotan azaltzen den arren, nekez erabiliko litzateke *declarative rising questions* delakoetan (Monforte, 2020b). Hala ere, ikerketa honen helburua horixe da: argitzea ea zein den partikula bien arteko aldea.

(5)



Gauzak horrela, ez du ematen alderik dagoenik; hala ere, arlo horiek Lapurdi itsas hegiko hizkeran hobeki aztertu behar ditugulakoan gaude.

Hortik abiaturik, ikertu nahiko genuke ea *ahal* eta *al* partikulen arteko harremana zein den: batetik, ea partikula bera diren ala jatorri beretik eratorri eta erlazonaturik dauden bi partikula beregainak diren; eta, bertetik, ea erdialdeko ezaugarritzat hartzen den *al* partikula ekialderago hedatu den. Izan ere, konbergentzia-fenomenoa ikus daiteke Gipuzkoako ipar-ekialdeko eta Lapurdi kostaldeko euskararen artean, hala nola berrikuntza fonologiko zenbaitetan (Zuloaga & Duhalde, 2019). Hurrengo atalean aurkeztuko dugu a) euskarazko partikula modalen analisi diakronikoaz zer proposatu den, b) zer argudio ditugun *ahal* eta *al* erlazonatzeko, eta c) Lapurdi itsas hegiko datuek zer ekarpen egin dezaket.

3. Gramatikalizazioa

Azken urteotan partikula modalen garapen historikoaren gaiari heldu zaio euskalaritzan (Lakarra, 2019; Monforte, 2020a, 2020b). Autore horiek proposatzen dute hainbat partikula modal aditzetik eratorriak direla, *ahal*, *ei*, *omen* eta *ote* hain zuzen; bertzalde, Monfortek (2020b) argudiatzen du *al* galdera partikula *ahal* partikula epistemikotik datorrela, kanpo eta barne ebidentzietan oinarrituta. Aitzinetik erran bezala, artikulu honetan partikula bi horien analisisira mugatuko gara; beraz, errepara diezaigun haien gramatikalizazioari.

Hasteko, argi dezagun zer den gramatikalizazioa. Lan-ikerketetan fenomeno linguistikotzat hartzen bada ere, Heinek (2003: 578) gogorarazten digu gramatikalizazioa teoria linguistikoko bat dela. Teoria hori arduratzen da hizkuntz-kategoriak nola sortu, nola aldatu eta nola garatzen diren azaltzeaz. Horrelako garapen baten adibidea ingelesezko *will* hitzean atzematen dugu: hitz hori aditz modala zen, baina egun geroaldia markatzeko baliatzen dute hiztunek (Heine 2003: 585-586); erraterako:

(6) will (eus. ‘nahi izan’) > will (eus. ‘-ren/ko’)

Gure gaiaren harira, *ahal* partikula epistemikoa *ahal* aditz modalarekin historikoki lotuta omen dago, forman ez ezik, erranahiaren aldetik ere hurbil baitaude. Izan ere, partikula modalak epistemikotasuna adierazten du eta aditz modala, oinarritzko modalitateaz gain, epistemikoa ere izan daiteke. Hori ez da harrizkoa, modalak polifuntzionalak izaten baitira, Balzak (2018: 100-101) dioen bezala. Are gehiago, de Haan & Hansenek (apud Balza, 2018: 101) polifuntzionaltasun hori gramatikalizazio graduarekin lotzen dute eta egoera horixe ikusten dugu bi *ahal* hauen artean; hots, adiera zehazgaitz eta subjektiboagoa duen *ahal* partikula modala objektiboagoa izan daiteken aditz modalaren gramatikalizazioaren emaitza da semantika lausotze eta interpretazio pragmatikoak ugaltzearen ondorioz (Monforte, 2021). Partikula modal batek askotako ekarpena izatea kategoriatan horren kideen ezaugarria da (Bayer & Obenauer, 2011: 454; Biberauer & Sheehan, 2011; Struckmeier, 2014: 17; Badan, 2020: 305) eta *ahal* partikula modal bat dator propietate horrekin, 1) segurtasun handia, 2) probabilitate txikia, 3) itxaropen handia eta 4) erretorikotasuna adierazten ditu eta.

Era berean, sintaxiak horren alde egiten du. Monfortek (2020b) erakusten du aditz modalak eta partikula modalak ez dutela banaketa bera ezezko partikulari (*ez*) eta geroaldiko markari (*-ko/-en*) dagokienez; adibidez:

(7) a. Ito ahalko haiz. (aditz modalaren irakurketa bakarrik)


b. Itoko ahal haiz. (partikula modalaren irakurketa bakarrik)

(8) a. Ez ahal du egia erraten. (partikularen irakurketa bakarrik)

b. Ez du egia erraten ahal. (aditz modalaren irakurketa ekialdeko hizkeretan)

Banaketa sintaktikoari begira ondoriozta dezakegu *ahal* partikulak espezializatu eta gune beregaina hartu duela, gramatikalizazioan ohikoa den bezala, goragoko gune bat hain zuzen (Roberts & Roussou, 2003; Roberts, 2007):

(9)



Bukatzeko, ematen du *ahal* partikula epistemikoa *al* galdera partikula bihurtu dela. Horren aldeko ebidentziak tipologian aurkitzen ditugu. Ezaguna da gramatikalizazio mota hau bertze hainbat hizkuntzatan: alemanez (Bayer, 2012; Pankau, 2018), ladineraz (Hack, 2014), errumanieraz (Farkas, 2017) eta japonieraz (Kinuhata, 2012). Errate baterako, ladinerazko partikula *pok* hiztunaren jarrera adierazten du Valtellina, Val Camonica, Val Giudicarie, Anpezzo eta Valsuganako hizkeretan (Hack, 2014: 56), baina markatzaile sintaktiko gisa funtzionatzen du Brat/Cazet eremuko hizkeran (ibidem: 69).

Horrez gain, barne ebidentziak ere badaude: lehenik, *ahalek* badu ekarpen interpretatiboa, *alek*, aldiz, ez, hizketa-ekintza mota markatzeaz arduratzen bide baita; bigarrenik, historikoki zaharragoa da *ahal*, XV. mendetik lekukotzen baita, *al*, ordea, XIX. mendearen amaieratik; azkenik, eremu geografiko murriztagoa du *alek ahalek* baino, erdialdeko euskalkian bakarrik erabiltzen baita.

Hala ere, gramatikalizazio prozesu horretan hainbat hutsune daude. Horieta bat hauxe da: nola pasatu zen *ahal* perpaus deklaratiβοetik galderetara eta nola zabaldu zen guztiz azken horretan? Alde batetik, aintzat hartu behar dugu Euskaltzaindiaren (1987: 513) ildotik *ahal* galdera erretorikoetan eta euskalki guztietan erabil daitekeela (Monforte, 2020b: 174-177) eta, bertze alde batetik, gogoan izan behar dugu Lapurdiko testigantza idatzietan *ahal* agertzen dela erretorikoak ez diren galderetan ere (1-3). Gainera, testuinguru deklaratiβοetako partikula epistemikoak galderetan erabiltzea ohikoa da hizkuntzartekoan (Bhadra, 2017: 83; Döring, 2007: 101; Faller, 2002: 230). Gauzak horrela, *ahal* partikula galderetan azaltzea ez da bitxia; dena den, bertze galdera bat datorkigu burura: nola hedatu zen polaritatezko galdera motetan zehar? Horretarako galdera erretorikoetako funtzioari eta Lapurdiko testigantzetakoari begiratu behar zaie, *ahal* partikula epistemikoari ekarpenetik abiatuta. Azken honek bertze galdera bat dakarkigu: zer harreman dago Lapurdin galderetan erabiltzen den *ahal* horren eta erdialdeko euskalkian ohikoa den *al* galdera partikularen artean? Partikula bera ote da?

Galdera hauek erantzuteko honako hipotesia hartzen dugu abiapuntu: *ahal* partikula epistemikoaren bitartez hiztunak proposizioarekiko engaiamendu maila adierazten du (Monforte, 2020b: 185); ekarpen bertsua galderetara zabaldu zen, baina, ohikoa denez, entzulearen jarrerari begira, hiztunarenari gabe. Badirudi interpretazio horrek Lapurdiko testigantzetan badirauela; alabaina, nekez sumatzen da erdialdeko erabileretan. Eremu horri begira, partikula (ia) guztiz orokortuko zen pragmatikoki eta horrek ekarriko zuen polaritatezko galdera mota gehiagotan agertzea erdialdeko euskalkian inon baino. Hona gramatikalizazio prozesua laburbilduta:

(10) *ahal* aditz modala > *ahal* partikula epistemikoa dekl > *ahal* partikula epistemikoa gald > *al* galdera partikula

Hipotesi hori berresteko asmoz, datuak bilduko ditugu bai literaturan, bai elkarriketen bidez. Hurrengo atalean metodologiari begiratuko diogu.

4. Etorkizunean egin beharrekoak: inkestak

Hemen aipagai dugun partikularen erabileraren ezagutza eta dakargun hipotesia berretsi ahal izateko, datu gehiagoren beharra dugula argi dugu. Gure esku diren lanak bereziki baliagarriak zaizkigu horretarako, hala nola dialektologiako lan monografikoak, zein datu-baseak. Bertzetik, gure eskualdeko idazleen lanak ere aintzat hartu behar ditugu. Zehazki, XX. mende hastapenetik gaur egun arteko

idazkiei begiratuko diegu. Gainera, ahozko mintzaira islatu nahi duten eta, beraz, ingurune naturalean *ahal* partikularen erabileraren berri eman ahal diguten lan literarioez interesatuko gara bereziki, hots, antzerkiez zein elkarrizketa zatiak dauzkaten eleberriez.

Gure eskualdeko idatzizko iturriak arakatzear gain, partikularen ahozko erabileraren berresteko eta datu berrien biltzeko asmoa dugu. Horretarako, baitezpadakoa izanen zaigu lekukoengana jotzea. Dialektologian usaiakoak diren irizpide zehatzak erabiliko ditugu lekukoaren hautatzeko (Camino, 2009: 295-308; Chaurand, 1972: 189-190; Sanchís Guarner, 1953: 57); hots, adinekoak izatea, inkesta egiten den herri horretan beti bizi izanak izatea, ahalaz bi burasoak eta ezkontidea herri horretakoak izatea, guti eskolatuak. Funtsean, aldaki lokalen erakusgarri fidagarriak eskaintzeko gai diren berriemaileak bilatzen eta grabatzen ahaleginduko gara.

Iturri idatzietan bildu datuak eta erabilerak abiapuntutzat hartuz, elkarrizketak bi helbururekin eginen dira; alde batetik, partikularen ezaugarri sintaktikoak eta fonologiko-prosodikoak biltzeko, eta, bertzalde batetik, erabilera pragmatikoa argitzeko. Gipuzkoako, Lapurdi itsas hegiko zein Lapurdi erdialdeko hiztunak elkarrizketatzeko asmoa dugu; eremu bakoitzeko launa berriemalerekin —bi gizon eta bi emazte— solastatzea pentsatu dugu. Inkestak oren bateko luzera izanen du, hogeita minutuko hiru zati hain zuzen ere: 1) hizketa librea; 2) komikien bitarteko inkesta bideratua; 3) iritzi gramatikalari buruzko inkesta.

Hizketa librean hiztuna eroso jartzeko helburua izanen du, baita bere profila berrestea eta zehaztea ere —noiz eta non sortua den, burasoak eta ezkontidea nongoak dituen, bertzeak bertze—. Bigarren eta hirugarren zatia, berriz, partikularen erabileran zentratuko da. Datozen lerrotan inkestaren diseinua zehaztuko dugu.

Partikula erabiltzera bideratzen duten testuinguruak sortzeko eta lekukoaren iritzi gramatikalak biltzeko, istorio laburrak diseinatuko ditugu, Matthewsonen (2004) eta Burtonen eta Matthewsonen (2015) metodologiari inspiratuz. Zehatu nahi dugu inkesta teknika honek partikulen inguruko datuak biltzeko abantailak erakutsi dituela (Monforte, 2020b). Iritzi gramatikalen eta, partikulariki, erranaldien egokitasuna neurtzeko Likert eskala erabiliko dugu; beraz, gramatika sortzailean erabili ohi den *gramatikala/ez-gramatikala* binomiotik aldenduko gara, hizkuntza naturalen aldakortasuna islatzeko mugak baititu (Brandner, 2012: 122).

Geuk sorturiko istorioak lekukoei komiki bidez aurkeztuko zaizkie eta horien sortzeko euskarri digitala erabiliko da. Honela, Pixton webguneak eskaintzen dituen ahalbideei esker sortuko dira komikiaren irudiak (<https://www.pixton.com>). Erran gabe doa partikula espero dugun testuinguruak azalarazteko helburuarekin asmatuko dela istorioa.

1. irudia. Inkestetarako komikiak



Lehenik, lekukoari erraldiak modu kontrolatuan sortzeko helburua duen ariketa proposatuko zaio. Komikiaren irudiak erabiliz, eszenak tokiko aldaeran kontatuko zaizkie, estandararekin edo inguruko hizkerarekin interferentziak saihesteko. Kontakizunaren gidoia aitzinetik grabatuko da, tokiko laguntzaile batekin, edo inkestatzailea bertako hizkeraren jabe baldin bada, zuzenean kontatuko du, eszena jakin batzuk izan ezik. Horietan, partikula erabiltzea espero den testuinguruan hain zuzen ere, berriemaileari hutsunea betetzeko eskatuko zaio.

Bertze alde batetik, lekukoaren iritzi gramatikalen biltzeko helburua duen ariketa eginen dugu. Hemen ere, komikiaren laguntzarekin, hiztunari istorioa bertako aldaeran kontatuko zaio eta kontakizuneari zehar entzuniko esaldi batzuen egokitasunari buruz daukan iritzia eskatuko zaio, zuzentzat zein onartezintzat edo okertzat dituenak zehaztu ditzan. Gainera, testuinguru aintzat hartuz, esaldia nola formulatuko lukeen ere galdetuko zaio.

5. Ondorioak

Dialektologoen azpimarratu bezala, Lapurdi itsas hegiak erdialdeko hizkerekin duen lotura nabarmendu izan da. Hori gogoan eta eremu horretan *ahal* galdera ez-erretorikoetan ere erabiltzen dela aintzat hartuta, gure galdera izan da ea erdialdeko ezaugarritzat hartu den *al* partikula hara hedatu ote den ala kostatarraren garapen beregaina den. Galdera hori erantzun nahian, Lapurdi itsas hegian agertzen den partikulari hurbiletik begiratu diogu eta agerian geratu da badela aldea *al* partikularekin konparatuz gero, sintaktikoki ez ezik, pragmatikoki ere. Azken partikula horren gramatikalizazioa aintzat harturik, gure hipotesia da *ahal* > *al* bilakabidearen tarteko fasea dela *ahal* lapurtarra. Hipotesi hori berresteko, Lapurdiko hiztunak elkarriketatuko ditugu etorkizunean.

6. Erreferentziak

- Alberdi, A. (2014): *Ahoskera*. Eusko Jaurilaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.
- Aurrekoetxea, G., Gaminde, I., Ormaetxea, J.L., Videgain, X. (2019): *Euskalkien sailkapen berria*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Aurrekoetxea, G., Gaminde I. & Iglesias A. (2011): “Corpus based prosodic variation in Basque: y/n questions marked with the particle *al*”, *Estudios de Fonética Experimental*, XX, 11-31.
- Badan, L. (2019): “Italian discourse markers: the case of *guarda te*”, *Studia Linguistica* 74(2), 303-336.
- Balza, I. (2018): *Syntactic structure and modal interpretation: the case of Basque* behar. UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz [Doktorego tesia].
- Bayer, J. & Obenauer, H.-G. (2011): “Discourse Particles, Clause Structure, and Question Types”, *Linguistic Review* 28(4), 449-491. <http://dx.doi.org/10.1515/tlir.2011.013>
- Bayer, J. (2012): “From modal particle to interrogative marker: a study of German *denn*”. In L. Brugé (arg.), *Functional Heads. The Cartography of Syntactic Structures*, Oxford University Press, Oxford, 13-28.
- Bhadra, D. (2017): *Evidentiality and questions: Bangla at the interfaces*. Rutgers University, New Brunswick, NJ [Doktorego tesia].
- Biberauer, T. & Sheehan, M. (2011): “Introduction: particles through a modern syntactic lens”, *The Linguistic Review* 28(4), 387-410.
- Bonaparte, L.-L. (1991 [1869]): *Le verbe basque en tableaux*. In *Opera Omnia Vasconice I*. Euskaltzaindia, Bilbo.
- Brandner, E. (2012): “Syntactic Microvariation”, *Language and Linguistics Compass* 6, 113-130. <https://doi.org/10.1002/lnc3.320>
- Burton, S. & Matthewson, L. (2015): “Targeted construction storyboards in semantic fieldwork”. In M. R. Bochnak & L. Matthewson (arg.), *Methodologies in semantic fieldwork*, Oxford University Press, New York, 135-156
- Camino, I. (2009): *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Elkar, Donostia.
- Chaurand, J. (1972): *Introduction à la dialectologie française*. Bordas, Paris-Bruxelles-Montréal.
- de Rijk, Rudolf. (2008): *Standard Basque: A progressive grammar*. MIT Press, Cambridge, MA.
- Döring, S. (2007): *Zur Kontextverschiebung bei deutschen Diskurspartikeln*. Humboldt-Universität zu Berlin, Berlin [Master amaierako lana].
- Euskaltzaindia. (1987): *Euskal gramatika. Lehen urratsak II*. Euskaltzaindia, Bilbo.
- Faller, M. (2002): *Semantics and pragmatics of evidentials in Cuzco Quechua*. Stanford University, Palo Alto, CA. (Doktorego tesia.).
- Farkas, D. F. (2017): “Going beyond the prototypical: Special interrogatives and special declaratives”. In *Stanford Colloquium*, Stanford University, Stanford, 2017ko abenduaren 8an aurkeztua.
- Gimet, R. (1950): “Le Kostatar.” Dialecte basque de la région de St. Jean-de-Luz”, *Eusko Jakintza* 4, 221-250 eta 393-424.
- Hack, F. M. (2014): “The particle *po* in the varieties of Dolomitic Ladin—grammaticalisation from a temporal adverb into an interrogative marker”, *Studia Linguistica* 68(1), 49-76.
- Heine, B. (2003): “Grammaticalization”. In B. D. Joseph & R. Janda (arg.), *The handbook of historical linguistics*, Blackwell Publishing, Malden / Oxford / Melbourne / Berlin, 575-601.
- Kinuhata, T. (2012): “Historical development from subjective to objective meaning: Evidence from the Japanese question particle *ka*”, *Journal of pragmatics* 44(6-7), 798-814.
- Lakarra, J. A. (2019): “*Bon-/bor-/bol-* familiaren berreraiketarako (II): Etimologia, partikulen historiaurrea eta hots-lege batzuen irregularitateez”. In I. Epelde & O. Jauregi (arg.), *Bihotz ahots. M.L. Oñederra irakaslearen omenez*, UPV/EHU, Bilbo, 377-396.
- Larzabal, P. (1991): *Piarres Larzabal idazlanak II*. Elkar, Donostia.
- (1992a): *Piarres Larzabal idazlanak III*. Elkar, Donostia.
- (1992b): *Piarres Larzabal idazlanak IV*. Elkar, Donostia.

- Matthewson, L. (2004): "On the methodology of semantic fieldwork", *International journal of American linguistics* 70 (4), 369-415.
- Mitxelena, K. & Sarasola, I. (2017): *Orotariko euskal hiztegia*. Euskaltzaindia, Bilbo.
- Monforte, S. (2018): "Question particles in Basque". *Isogloss. A Journal on Variation of Romance and Iberian Languages*, 4(1), 29-53. <https://doi.org/10.5565/rev/isogloss.48>
- (2020a): "Diachronic hypotheses accounting for synchronic variation: the case of Basque particle *ote*". In E. Santazilia, D. Krajewska, E. Zuloaga & B. Ariztimuño (arg.), *Fontes Linguae Vasconum 50 urte: Ekarpak berriak euskararen ikerketari/Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca*, Nafarroako Gobernua, Iruña, 437-451. DOI: <https://doi.org/10.35462/fontes50urte.28>
- (2020b): *Galderetako -a, al eta ote partikulak euskaraz*. *Sintaxia, mikroaldakortasuna eta interpretazioa*. UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz [Doktorego tesia].
- (2021): "The development of modal particles and its implication in the syntax: the case of Basque *ahal*", [UPV/EHUko izkribua].
- Pankau, A. (2018): "The Syntax of 'n in North East Berlin German". In *Recent Issues in the Syntax of Questions*, Konstantzako Unibertsitatea, Konstantza, 2018ko urriaren 8-10ean aurkeztua.
- Roberts, I. & Roussou, A. (2003): *Syntactic change: A minimalist approach to grammaticalization*. Cambridge University Press, Cambridge.
- Roberts, I. (2007): *Diachronic syntax*. Oxford University Press, New York.
- Sanchís Guarner, M. (1953): *La cartografía lingüística en la actualidad y el Atlas de la Península Ibérica*. Instituto Miguel de Cervantes, Madril.
- Struckmeier, V. (2014): "Ja doch wohl C? Modal Particles in German as C-related elements", *Studia Lingüística* 68(1), 16-48.
- Vinson, J. (1907-1911): "Spécimens de variétés dialectales basques", *RIEV* 1, 627-633; *RIEV* 2, 129-135; *RIEV* 5, 211-223.
- Zavala, A., Treku, M. & Treku, M. (2006): *Mattin bertularia*. Auspoa Argitaletxea & Gipuzkoako Foru Aldundia: Donostia.
- Zuloaga, E. & Duhalde, M. (2019): "Linguistic features across political borders: the case of Basque dialects in France and Spain", *10th International Conference on Language Variation and Change (ICLAVE - 10)* biltzarrean aurkeztutako lana. Leewarden, 2019/06/26-28.
- Zuazo, K. (1998): "Euskalkiak, gaur", *Fontes Linguae Vasconum*, 78, 191-234.
- (2003): *Euskalkiak, herriaren lekukoak*. Elkar, Donostia.
- (2006): *Deba ibarreko euskara. Dialektologia eta tokiko batua*. Badihardugu Kultur Elkartea, Eibar.
- (2008): *Euskalkiak, euskararen dialektok*. Elkar, Donostia.
- (2014): *Euskalkiak*. Elkar, Donostia.

7. Eskerrak

Lan honek honako ikerketa-proiektuen laguntza izan du: *Basque in the Making: a Historical Look at a Language Isolate* (ANR-17-CE27-0011-01), *Euskarazko zenbait partikula funtzionalen azterketa (modala, ezezkoa, konplementatzailea)* (PGC2018-100686-B-I00) eta *Monumenta Linguae Vasconum 5: periodización y cronología* (MINECO, FFI2016-76032-P).